

Labur-labur: Mikroipuinak Buztana Luze

SARRERA: Amelia Barquín

TESTU HAUTAKETA: Amelia Barquín eta Gerardo Markuleta

ITZULPENAK: Gerardo Markuleta eta Iban Zaldia (*Agurea eta Herioa* salbu, Imanol Zurutuza: *Errautsera arteko sugarra*).

Sarrera-hitzak

Zer da ipuin "hiperlaburra"? Definizio kanonikorik ez dagoen arren, haren izaera oso lotuta dago, zalantzarik gabe, luzaera mugatuarekin, testu motaren izenak berak iragartzzen duenez. Egile eta ikertzaile gehienek, ados antzean, orri inprimatu bakar bat jotzen dute narrazio mota honen luzaera gehienezkoa (batzuek apur bat gehiago edo gutxiago onartzen badute ere). Gutxienezkorik, berriz, ez dago: paragrafo bat, esaldi bat, hitz bat..., edo hitz bat bera ere ez. Izenburuaz aparte, noski, izenbururik izatekotan.

Zehaztapen bat egin beharra dago, hala ere: narrazio hiperlaburrak nahikotasun narratiboa dauka, hau da, testu osoa eta autonomia da; ez zaio zatirik falta eta ez du besterik behar ulertua izateko (kultur erreferentziak alde batera utzita); ez da beste testu baten zati, detaile edo laburpena. Hala ere, batzuetan liburu berean beste hiperlaburrekin bilduta egoteak testuaren zentzua aberastuko du.

Betidanik ekoiztu dira literatur lan laburrak, hainbat generotakoak, hala ahozkoak nola idatzizkoak: mitoak, fabulak, parabolak, ipuin herrikoi laburrak, txisteak, pasadizoak, errefrauk, zen koanak, hai-kuak... Mundu osoan hainbat narratzaile dira, bestalde, beren obren artean narrazio oso laburren bat sortu dutenak, askotan esperimentu edo jolas modura. Baina hogeigarren mendean ugaltu egin ziren idatzizko ipuin hiperlaburrak, jasoak, duintasun literarioaren kontzientziarekin sortuak alegia, batez ere Hispanoamerikan eta mendearen bigarren erdian.

Azken urteotan hazkundera nabarmena izan da: ez dira falta izan (batez ere Hispanoamerikan eta Estatu Batuetan, baina baita beste herrialdeetan ere) hiperlaburrak argitaratzeko aldizkariak, lehiaketak, antologiak, Interneten zabaldu diren bildumak, aldizkako argitalpenetan utzi zaizkien txokoak... Kritikaren beraren estimuaren isla dira, bestalde, azkeneko hamabi urteotan argitaratu den hainbat ikerketa.

Zeintzuk dira egunotan ekoizten ari diren hiperlaburren ezaugarriak? Luzera da, noski, deigarriena, eta harekin lotu daitezke beste ezaugarriak: finean, baliabidetzat jo daitezke, erabiltzen diren hitz gutxiei gehiengoko etekina ateratzeko.

Argi dago funtsezkoa dela hitzen ekonomia. Ipuin onenetan hitz bat bera ere ez da sobera egongo, ezta faltako ere; literatura onaren bertute hori *sine qua non* baldintza bihurtzen da hemen. Hizkuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna zaintzen da bereziki, baina espresioaren zorroztasuna eta intentsitatea gailendu arren, badago indar handia, halaber, esaten ez den horretan: ezinbestekoa da iradokitze eta konnotatzeko gaitasuna.

Hitz gutxirekin asko esateko erronkan hainbat baliabide erabiliko dira: paradoxa, irudi eta metafora ausartak, hitz jokoak, kontzeptismoa... Hein handi batean, injenio jokoa da. Horrekin guztiarekin batera, izenburuaren garrantzia azpimarratu behar da: ez da bakarrik testu askoren elementu inportante bat; elementu giltzarri bihurtzen da hainbat adibidetan.

Bukaerako efektismoa ere oso ohiko da. Sorpresa daukagu zain: sinesgaitza, ezustekoa, harrigarria, ezinezkoa... Azken lerroek edo azken hitzek transformatu egiten dute aurretik irakurri duguna, eta berrirakurketa eragiten dute: bat-batean, irakurritakoak beste zentzu bat hartzen du.

Irekitasuna da, bestalde, hiperlabur askoren ezaugarri nagusienetakoa. Narrazioaren konbentzioak –pertsonaiak, hasiera, korapiloa eta bukaera...– ez dira jada ezinbestekoak: batzuetan elementu horietako bat iradokita baino ez da egongo; beste batzuetan ez da ezta agertuko ere. Testuak galdera eta

hutsune gehiago eskaintzen ditu informazio zehatza baino, eta irakurlea, beraz, testuaren konplize bihurtuko da: erabat bukatu gabe dagoen testu hori aktualizatu egin beharko du.

Heterogeneitatea ere aipatu behar da. Beste generoeekin dauzkaten mugak ez dauka argi. Ez dira faltako, adibidez, ipuin hiperlabur ederrak hainbat generotako testuen artean: poemak, abestiak, aforismoak, *graffiti*ak, erretrauak... Bestalde, ohikoa da transgresio generikoa; deigarria da mikroipui- nek generoak okupatzeko daukaten zaletasuna. Ipuin batek telegramaren forma har dezake, edo izan daiteke entsegua, instrukzio-testua, parabola, aforismoa, anekdota, fabula, bestiarioa, albistea, eskela, ohar nekrologikoa, narrazio biografikoa, deskripzio geografikoa, hiztegiko definizioa, egunkariko iragarkia, gutuna, eta abar eta abar. Idazkeraren formula guztiak erabiltzeko bidea irekitzen du ironiak.

Transtestualitatea ere ez dugu ahaztu behar: sarri erabiltzen dira mota guztietako erreferentzia kulturalak, literaturakoak batez ere. Esate baterako, mito eta liburu- eta pertsonaiak askotan agertuko zaizkigu mikroipui- netan: Ulises, Penelope, Minotauroa, Adan eta Eba, Kain eta Abel, Kixotea... Autoreak beraiek ere pertsonaiak izango dira: Home- ro, Kafka, Cervantes, Balzac... Errekurtso honen bidez, irakurleak dagoeneko badakiena abiapuntu gisa hartzen da istorio berria eraikitze edo berrirakurketa –gehienetan ironikoa– proposatzeko.

Eta umorea dago, jakina. Era guztietako umorea: zuria, beltza, ironikoa..., satira edo sarkasmora ailegatu arte.

Ezaugarri horiek guztiak aipatu eta gero ulertuko da, ziur asko, zergatik jo ohi diren

mikroipuinak postmodernitatearen isla biritzat, geure garaia ondo dagokion idazkera motatzat. Eta zer esango dugu amaitzeko? Testuok, konbentzioekin hain errespetu gutxi eta jolasteko eta probokatzeko hain gogo handia erakusten duten testuok, ez dira sailkatzen batere errazak: arrainak bezala, irris-takorrek dira zentzu askotan. Izan ere, hainbat hiperlaburrek hemen azaldutako ezaugarriak betetzen dituzte; beste hainbatetik, berriz, soilik baten bat. Batzuek, azkenik, bat ere ez.

AGUREA ETA HERIOA


Behin batez, egurretara joanda, karga bizkar gainean hartuta, bide luzea egokitu zitzaion egurkari zahar bati. Hala, bidean ezinean zihoala, akiturik, fardela lurrera bota eta hasi zen Herioari deika. Agertu zitzaion hura, eta galdegin:

—Zertarako ari zinen deika?

Agureak, berriz, izuak dardarka:

—Lagun diezadazun, fardela bizkarrera jasotzen.

ESOP



ABISUA

Kanariar irletan brontzezko estatua erral-
doi bat ageri zen: zaldun batek, bere ezpataz,
Mendebalera seinalatzen zuen. Oinarrian
honakoa zen idatzia: "Itzul zaitezte. Nire biz-
kar aldera ez dago ezer".

R. F. BURTON

CHUANG TZU-REN AMETSA

Chuang Tzuk amets egin zuen tximeleta
bat zela, eta esnatzean ez zekien tximeleta bat
zela amets egindako gizon bat ote zen, edo
orain gizon bat zela amets egiten zuen txi-
meleta bat.

HERBERT ALLEN GILES

NORTASUNA

I. Jo ezazu Zu ez zarela existitzen, eta bila
ezazu ordezeko Norbait.

II. Begira iezaiozu arretaz zure ezker es-
kuari, eta esan nor den haren jabea.

JEAN TARDIEU

LOTSA ZER DEN

Hain kezkatzen zen eragozpenik ez sor-
tzeko, leihoa itxi baitzuen berriz bere atze-
tik, jo eta jauzi egin ondoren, seigarren pisu-
tik behera.

JACQUES STERNBERG

IZUZKO IPUINA

Maite izan nuen emakumea fantasma
bihurtu da. Ni naiz agerkundeen lekua.

JUAN JOSÉ ARREOLA

III. KLAUSULA

Paradisuari amets egiten duen bat
naiz, baina saihets-hezur guztiak beren ho-
rretan ditudala esnatzen naiz beti.

JUAN JOSÉ ARREOLA

GREGERIA BAT

Erretzeari utzi zion, baina berriro hasi zen:
atzetik zituen hautsontzi gosetiak.

RAMÓN GÓMEZ DE LA SERNA

Norbaitek, atzeko aldetik, begiak estali
zizkion, baina ez zuen sekula jakin nor izan
zen, eskua oso hotz zeukala besterik ez.

ÁNGEL PÉREZ PASCUAL

HEGOAK

Medikuntzan niharduen garai hartan,
Huamahuaca-n. Arratsalde batez, ume zau-
ritu bat ekarri zidaten: muino bateko amil-
degitik eroria zen. Ikuskatzeko, pontxoa eran-
tzi nionean, bi hego sumatu nituen. Aztertu,
eta osasuntsu zeudela ohartu nintzen. Umeak
hitz egin ahal izan zuen bezain laster, galde-
tu nion:

—Zer dela eta ez zenuen hegan egin eror-
tzean, semetxo?

—Hegan egin? —esan zidan—. Hegan egin,
jendeak nitaz barre egiteko?

ENRIQUE ANDERSON IMBERT

DINOSAURUA

Esnatu zenean, dinosauruak hantxe jarrai-
tzen zuen.

AUGUSTO MONTERROSO

EMANKORTASUNA

Gaur, Balzac bat sentitzen naiz; lerro hau bukatzekotan nago.

AUGUSTO MONTERROSO

ARDI BELTZARENA

Urrutiko lurralde batean bazen aspaldi Ardi beltz bat.

Fusilatu egin zuten.

Mende bat igarota, artaldeak, damuturik, zaldigaineko estatua bat jaso zion, eta parkean dotore ezarri.

Horrela, aurrerantzean, ardi beltzen bat agertu bakoitzean, berehala fusilatzen zuten, etorkizuneko belaunaldietako ardi arruntek ere eskulturaren aritzeko aukera izan zezaten.

AUGUSTO MONTERROSO

GAUA

Ezinezkoa zait lorik egitea. Emakume bat daukat trabaturik betazalen artean. Ahal izanez gero, alde egiteko esango nioke; baina ezin: emakume bat daukat eztarrian trabaturik.

EDUARDO GALEANO

EZ ZEN ARRUNTA, EZ, HAIEN MAITASUNA

Lizunkeriatan ibiltzeagatik atxilotu zituzten. Eta azalpenak ematen hasi zirenean, ez zien inortxok ere sinetsi. Egia esanda, haien maitasuna ez zen batere arrunta. Bata klausrofobiak jota zegoen; bestea, berriz, agorafobiak. Horixe zuten arrazoi bakarra larrutan atarietan egiteko.

MARIO BENEDETTI

CURRICULUM VITAE

Diktadore bat, sarritan, gora egindako iraultzaile bat da. Iraultzaile bat, sarritan, gora egin ez duen burges bat izaten da.

MARCO DENEVI

Ordu batez zoriontsu izan nahi baduzu, edan ezazu baso bat ardo onetik. Egun batez izan nahi baduzu, egin ezazu behin larrutan. Hilabetez bada, barrenak garbitu libragailu batez. Urtebetez zoriontsu izan nahi baduzu, ezkon zaitez. Bizi guztian zoriontsu izan nahi baduzu, ez zaitez ezkondu.

JULIO TORRI

Ez iezadazu hitz egin nire liburuaz, mesedez, tranbietan; ez ezazu nire liburuaz hitz egin gauza arrunt bat balitz bezala. Hitz egidazu, aukeran, eguraldi onaz; edo esaizkidazu, nahiago baduzu, emakumeei eta diruari buruzko arrunkeria eta hutsalkeriak; utz ezazu bakean nire liburua.

JULIO TORRI

NEGAR EGITEKO ARGIBIDEAK

Arrazoiak albo batera utzita, eutsi diezaio-
gun negar egiteko modu egokiari, hots, eskandalu izatera helduko ez den, eta bere antz paralelo eta dorpearekin irribarreari irain egingo ez dion negar bati. Negar ohikoa edo arrunta honako honetan datza: aurpegiaren hertsidura orokorra, eta hots espasmodiko bat, malko eta mukiz lagundua; azkenok amaiera aldera, negarraldia hain zuzen ere indarrez zintz egiten dugun unean amaitzen baita.

Negar egiteko, bidera ezazu irudimena zeure buruarengana; hori ezinezkoa gertatzen bazaizu, kanpoko munduan sinesteko ohitura kutsatu zaizulako, pentsa ezazu txingurritz jositako ahate batean, edo Magallanese-ko itsasarteko golkoetan, *inor inoiz sartzen ez den horietan*.

Negarra heldurik, estal ezazu lotsaz aurpegia esku biak erabiliz, ahurra barru aldera dutela. Haurrek jakaren mauka aurpegiaren kontra egingo dute negar eta, aukeran, gelako txoko batean. Negarraldiaren batezbesteko iraupena, hiru minutu.

JULIO CORTÁZAR

ESKUKO MARRAK

Mahaiaren gainean botatako joko-karta batetik, marra bat sortu, pinu-egurrezko ohola zeharkatu, eta hanka batetik jaisten da. Ondo begiratzeara nahikoa da ohartzeko marrrak parkeko zorutik jarraitzen duela, hormatik igo, Boucher-en margolan bat erreproduzitzen duen irudian sartu, diban batean etzanda dagoen emakumearen bizkaraldea marraztu eta, azkenik, ihes egiten du gelatik sabaian zehar, eta kaleraino jaisten da tximistortzaren kablean behera. Hor zaila da marrari jarraitzea, trafikoa dela eta, baina arreta jarritz gero izkinan aparkaturik dagoen eta portura daraman autobuseko gurpiletik igotzen ikus daiteke. Han, ilerik horiena duen emakume bidaia-iararen nylon-kristalezko galtzerditik jaisten da, aduanen etsaitasunezko lurraldean sartu, narras eta sigi-saga aurreratzeko moila nagusiraino, eta han (baina zaila da ikustea, arratoiek bakarrik segitzen diote untziraino) turbina zaratzeko itsasuntzira igotzen da, lehen mailako kubertako xa-

fletatik ibiltzen da, nekez zeharkatzen du eskotila nagusia eta, kofiak edaten eta abiatzeko sirena-hotsa entzuten ari den gizon baten kabinan, fraketako josturatik igotzen da, artilezko txalekotik gero, ukondoraino jaitsi eta, azken ahalegin bat eginez, eskuin eskuko ahurrean babesten da, une horretan pistola baten kulatan ixten hasi den esku horretan.

JULIO CORTÁZAR

Osagarri: Bi Euskal Hiperlabur Ezagun, Gaztelaniaz Emanak

CUATRO JINETES

Al cumplirse el plazo de siete años, el Caudillo reunió a los emisarios en palacio. Los elegidos se sentían felices, con las últimas instrucciones bien aprendidas, y la gente del pueblo esperaba con impaciencia el momento de la partida. Los cuatro enviados se encaminaron hacia los cuatro puntos cardinales un atardecer de cielo limpio y claro. Su misión era buscar la felicidad para su pueblo, aprender cómo vivían en el extranjero y qué hacían para ser felices, así como apropiarse de los instrumentos necesarios para ello. Era una antigua costumbre que, a la vuelta, contarán todo lo que habían visto y mostraran todos los objetos traídos de su viaje, como si se tratara de prodigios. La aprobación y la última palabra correspondían al Caudillo y a los ancianos del lugar; se reunían en la plaza mayor, y solía ser un gran día de fiesta.

El tiempo corre más ligero que ningún jinete, y así fueron pasando días y años. Pero nada hay que perdure más que el recuerdo de la gente que alberga esperanzas. Viendo a



la gente de aquel pueblo, cualquiera hubiera dicho que su confianza y su ilusión eran la imagen misma de la felicidad. Pero el invierno suele ser frío, y muy largo; aquella gente fue envejeciendo, volviéndose más débil. Tal como la tortuga se oculta durante el invierno, así desaparecen las ilusiones y los deseos.

El primer enviado no trajo casi nada a su vuelta, ya que lo que había visto apenas le impresionó. Dijo que el viaje había sido en vano, que en ningún lugar podía estarse tan bien como en la propia casa, y que no merecía la pena andar vagando sin rumbo por ahí. Le habían regalado un cazo de color verde para disolver unos polvos especiales, pero no estaba muy seguro de para qué servían.

—Mira que hay gente rara por esos mundos —dijo, y se retiró a su morada para siempre.

El segundo emisario volvió medio enloquecido, de tantas atrocidades y cosas repugnantes como había visto. Pero estaba mudo, no quería contar nada, ya que pensaba que en cuanto pronunciara una palabra moriría sin remedio. Envejecido, sin rastro de juventud, su rostro no expresaba nada en absoluto. Ni lloraba, ni sonreía, ni nada. Parecía un amigo de las Parcas. La gente del pueblo no sabía qué pensar. Algunos, sorprendidos, decían:

—Quizá haya sido encantado por unas doncellas maravillosas.

El emisario que fue al Norte volvió lleno de contento. Parece que ha vuelto más normal —decían—, el viaje no le ha perjudicado. Pero no era del todo cierto. En primer lugar les explicó las costumbres de aquellas tierras lejanas, después la forma más oportuna de utilizar sus leyes y, por fin, declaró que por qué no habían de aprender también aquellos usos, al igual que tanta gente en el mundo. Que si empezaran a practicarlos poco a poco, se habituarían rápidamente. La gente del pueblo, tal como suele suceder con las imposiciones, pronto empezó a desconfiar. Así, al obligar a la gente a usar aquellas leyes extranjeras, a los ojos de los demás se volvió un ser retorcido, malvado y cruel. Según decía, él no hacía otra cosa que adaptar las costumbres foráneas, lo habitual en el extranjero, nada más que modernizar su pueblo. Pero en opinión de los demás era el mismo diablo. Por medio de trampas e intrigas, atemorizando a la gente, usando la mentira y el engaño, tomó el poder y se convirtió en Caudillo. Aplastó con violencia a todo aquel que consideraba podía ser su rival y a cualquiera que pudiera oponérsele.

Cuando asesinó al que hasta entonces había sido el Caudillo, pronunció un terrible discurso. Dijo que el progreso del pueblo comenzaba en aquel preciso momento. Al día siguiente, promulgó una ley que prohibía traspasar las fronteras del reino y, aunque se trataba de una antiquísima costumbre del lugar, prohibió para siempre que se enviaran cuatro emisarios a los cuatro puntos cardinales.

El emisario que se había dirigido al Sur no volvió nunca.

JOXEMARI ITURRALDE

LA NEVADA

El pastor nos había dicho que no saliéramos, que el tiempo estaba revuelto, que soplaban un viento huracanado. No le hicimos caso; nos echamos las mochilas al hombro y comenzamos a ascender. El viejo pastor se quedó en el refugio, maldiciendo a los jóvenes.

Subiendo desde Arantza, en Navarra, se llega a Mendaur. En la cumbre está la ermita de la Trinidad y, al otro lado, abajo, Ituren, nuestro destino.


No habríamos caminado ni media hora por el monte, cuando empezó a nevar. Retroceder era imposible. Pero tampoco había manera de avanzar: a una distancia de dos metros, no se veía nada. En esa situación estábamos, cuando entre los pinos cercanos apareció una figura humana, que nos mostraba el camino con su brazo de nieve. Y hacia allá nos dirigimos.

Volvimos a perder el camino un par de veces más, y en las dos ocasiones se apareció el espantapájaros de nieve.

Pasamos cuatro días en la ermita de la Trinidad: derretíamos nieve para hacer sopa, hacíamos fuego para calentarnos los pies. Al quinto día llamaron a la puerta: hacía sol, y allí, a unos cien metros, la figura de nieve nos señalaba el camino hacia Ituren.

De nuevo empezó a nevar, de nuevo nos perdimos. Cuando apareció nuestro blanco guía, lo agarramos por el cuello y lo deshicimos a patadas y a golpes: bajo la cubierta de nieve, el cuerpo helado del viejo pastor.

KOLDO IZAGIRRE



BIBLIOGRAFIA PITTIN BAT

Jorge Luis BORGES eta Adolfo BIOY CASARES (ed): *Cuentos breves y extraordinarios*, Losada 1957

Julio TORRI: *De fusilamientos*, Ave del Paraíso Ediciones 1996

Antonio FERNÁNDEZ FERRER: *La mano de la hormiga: Los cuentos más breves del mundo y de las literaturas hispánicas*, Fugaz 1990

Clara OBLIGADO (ed.): *Por favor, sea breve*, Páginas de Espuma 2001

Círculo Cultural Faroni (ed.): *Galería de hiperbreves*, Tusquets 2001

Círculo Cultural Faroni (ed.): *Quince líneas*, Tusquets 1997